

COVID-19aren kudeaketako akatsak salatu, eta proposamenak egin ditu aditu-talde batek

Nazioarteko aditu-talde batek [The Lancet aldizkarian argitaratu duen txostenaren arabera](#), COVID-19aren kudeaketa txarraren ondorioz, eragotz zitezkeen milioika heriotza gertatu dira. Mundu osoko eta diziplina askotako (politika publikoak, gobernantza, epidemiologia, txertoak, ekonomia, jasangarritasuna, buruko osasuna...) 28 adituren artean egin dute txostena, 100 kolaboratzaile baino gehiagoren laguntzarekin, bi urtean zehar. Egindako akatsak biltzeaz gain, aurrera begirako proposamenak egin dituzte.

Nabarmendu dutenez, Osasunaren Mundu Erakundeak motel eta zuhurregi jokatu zuen funtsezko hainbat auzitan, hala nola larrialdia ezartzean, maskarak gomendatzean edo aire bidez transmititzen zela onartzean.

Gobernuen arteko koordinazioa ere ez zen egokia izan, eta, gainera, ez zuten lortu herritarrek neurriak onartzea, besteak beste, gardentasun-faltagatik, komunikazio eskasarengatik eta desinformazioarengatik.

Bestalde, azpimarratu dute politika publikoetan ez zituztela aintzat hartu portaera-zientziak eta gizarte-zientziak, eta ez direla gai izan gizarte-desberdintasunez jabetzeko eta haiei egoki erantzuteko. Hala, kaltea bidegabeki nabarmena izan da talde zaugarrienen artean.

Txertoak azkar garatu zirela onartu badute ere, jabetzan eta banaketan izan diren bidegabekeriak salatu dituzte.

Horrekin batera, agerian jarri dute Garapen Jasangarrirako Helburuetan atzerakada nabarmena gertatu dela herrialde askotan.



COVID-19aren kudeaketa kritikatzear gain, etorkizunerako proposamenak ere egin dituzte txostenean.

ARG.: Nik Anderson/CC-BY.

Etorkizunerako proposamenak

Gomendioen artean, koordinazio globalaren premia nabarmendu dute lehenik. OMERi dei egin diote birusaren jatorria argitzeko eta Zientzia Batzordea indartzeko.

Ezinbestekotzat jo dute gaixotasun emergenteak prebenitzea eta guztien zaintzaz arduratuko diren osasun-sistema publikoak bermatzea, hasi maila globaletik eta komunitate-mailaraino. Horrez gain, herrialde bakoitzak baliabideak izan beharko lituzke etorkizuneko osasun-arriskuei aurrea hartzeko eta erantzuteko, eta orobat proposatu dute Osasun Funts Global berri bat sortzea, OMERi lotuta egongo litzatekena.

Azken helburua da gertatutakotik ikastea, eta politika- eta osasun-sistema sendoak eta indartsuak eraikitzea, pertsonen osasuna eta ongizatea bermatzeko. ●



[Albiste gehiago,](#)
[webgunean](#)